

URRETXU-ZUMARRAGAKO OILASKO SARIKETAKO

A R A U D I A 2016

1.- ARRAZAK

Sariketa honetan Euskal Herriko baserrietako larreetan ibili ohi diren EUSKAL OILOA ARRAZAKO eta ARRAZA ARRUNTEKO oilaskoek parte hartu ahal izango dute. Arraza bakoitzak bete beharko dituen baldintzak hauek izango dira:

1.1.- EUSKAL OILOA ARRAZAKO OILASKOAK

Euskal oiloa arrazak dituen 5 motetako edozein aurkeztu ahal izango da, hau da, MARRADUNA, GORRIA, LEPASOILA, BELTZA edo ZILARRA. **Baserri bakoitzeko oilasko pare 1 aurkez daiteke** eta 6 hilabete baino gutxiagokoa izan beharko du .

Bikote onenak izendatu ahal izateko, lumaren kolorea, distira, tamaina, itxura, eta arraza nahiz mota bakoitzaren ezaugarri bereziak izango dituzte kontuan epaimahaikideek irizpide nagusi gisa.

1.2.- ARRAZA ARRUNTEKO OILASKOAK

Oilasko hauetan ere **pare 1 aurkeztu daitezke**, eta 6 hilabete baino gutxiagokoa izan beharko du. **Oilasko arrunta aurkezten duenak ezingo du Eusko Oiloa arrazako oilaskorik aurkeztu.**

Bikote onenak izendatu ahal izateko, itxura eta haragitarako duten gaitasuna hartuko dituzte kontuan epaimahaikoek irizpide nagusi gisa.

2.- SARIKETAKO EPAIMAHAIA

Sariketako epaimahaia Urretxu eta Zumarragako alkateek izendatuko dute zinegotzi arduradunen proposamenaren arabera, eta horretarako kontuan hartuko da gai honetan adituak diren erakunde publiko nahiz pribatu edo jakitunen iritzia.

Epaimahaikideak gutxienez hiru teknikari izango dira, eta gehienez beste bost, guztiak gai honetan jakitunak.

Udalek izendatuko dituzten langileen laguntza jasoko du Epaimahaiak.
Aldez aurretik jakingo da zein diren epaimahaikideak.
Epaimahaiaren erabakia aldaezina izango da.

3.- SARIKETAKO BALDINTZAK

Urretxu-Zumarragako Santa Lutziko urteroko sarietan parte hartzeko, oilaskozale bakoitzak oilaskoak garbi eta txukun, osasunez ondo daudenak, eta 1. puntuari esandako baldintzak betetzen dituztenak aurkeztu beharko ditu. Lehiaketatik kanpo geratuko dira gaixotasunen bat duten oilaskoak.

Oilaskozaleak aldeztu aurretik izena eman beharko du Urretxuko kultur etxean nahiz Zumarragako kultur etxean, **azaroaren 25eko** eguerdiko 12ak baino lehen; 943-03.80.88 edo 943-72.35.10 telefonoetara deituz ere egin daiteke.

Izena ematerakoan honako datuok ekarri beharko dira:

- Oilaskozalearen izena, helbidea eta N.A. zenbakia.
- Oilaskoak hazitako baserriaren izena eta ustiaketa txartel zenbakia.
- Kontu zenbakia (20 digitu)

Oilaskozaleak berak ekarri beharko ditu oilaskoak, hegaztiak lekuz aldatzeko baimen txartelarekin batera eta antolatzaileen aurrean aurkeztu abenduaren 13ko goizeko 7,30etatik 8,30etara bitartean, Kalebarren-Areizaga plazan. Oilaskoak, berriz, ezin izango dira jaso eguerdiko ordu biak arte.

- **Oharra: Hegaztiak lekuz aldatzeko baimen txartela aurkeztea ezinbestekoa da parte hartzeko**

Antolatzaileek ez dute bere gain hartuko sarietara ekarritako oilaskoen lapurretarik, ez oilaskoen min hartzerik, ez bestelakorik.

4.- SARIAK

2016ko sariak honakoak izango dira:

4.1. Euskal oiloa arrazako oilaskoak:

3 sari (gehienez) 125€koak (Eskualdekoa bada 80€ko gehigarria izango du)

4.2. Arraza arrunteko oilaskoak:

3 sari (gehienez) 100€koak (Eskualdekoa bada 80€ko gehigarria izango du)

Sariekin batera garaikurra emango da.

Sarietan parte hartu baina saririk jaso ez duten gainerako oilasko zaleek aurkeztutako pareagatik 20 euroko dieta jasoko dute (beraiek emandako kontu zenbakian sartuko zaie dirua).

Sariak Kalebarren-Areizaga plazan banatuko dira, Santa Lutzi egunean bertan eguerdiko 1,30etan hasiko den ekitaldian.

Oilaskozalea ez bada ageri sari banaketan, sariari uko egin diola ulertuko da.

Oharrak:

- Kاپoi zaleak bere kاپoiak saltzeko aukera du eta informazio orri batez erraztu egingo zaio.
- Eskualdean*: Legazpi, Zumarraga, Urretxu, Ezkio-Itsaso, Gabiri eta Ormaiztegi sartzen dira.